

DIRU ITURRIAK

Gure produktuak, prezio finko bat izango du, zerrendako prezioa (300-350 euro). Enpresa berria izateagatik eta gure lana aurrera ateratzeko gai izateko, GOIEKI diru laguntza bat emateko prest egongo litzateke, gero, Alzheimerreko elkarte batzuk esku bat botazeko prest egongo lirateke, hauekiko adibide bat, **CEAFA** izango litzateke. Baita ere robot bat saltzen dugun bakoitzean, dirua ordainduko digute gure zerbitzua erabiltzeagatik.

Ezarritako prezioaren %15a robota sortu eta programatu duen enpresari emango diogu, %10a, diru laguntzetara, hau da, ordaindu ezin duten pertsonetara bideratuko dugu eta, azkenik, gelditzen dena, hots, %65a gure enpresa handitu, zabaldu eta hobetzeko erabiliko dugu. Publizitatea emateko web orri bat egingo dugu, bertan informazio guztia egongo da eskuragarri. Gure enpresa zabaltzeko, irratan eta kalean jarritako poster batzuk, internet, sare sozialak, erabiliko ditugu. Baita ere, gurekin lan egiten duten elkarteak eta osasungintzako enpresa (TedCas) batek gure izena emango die bere bezeroei, gure lana saltzeko. Ekintzaileak izateagatik, ere, dirua emango digute gure lanarekin aurrera jarraitu ahal izateko.